



## Gabonetako ekintza: mendi irteera

Mutrikuko Lapatxoko Gaztelekuak gabonetako ekintza bat prestatu du, 2010. urtean jaiotako nerabeei zuzenduta: **mendi irteera**. Mutrikuko edo ondoko herriko mendi batera joango gara goiz-pasa (ekintzan izen emateko epea itxi bezain pronto, apuntatutako nerabe-kopuruaren arabera aukeratuko dugu nora joan, eta email bidez abisatuko dizuegu).

### **ABENDUAREN 26A, ASTELEHENA: MENDI IRTEERA**

- 9:00etan Albokan elkartuko gara.
- 14:30 aldera Albokan amaituko da ekintza.

#### Eraman beharrekoa:

- Arropa eta oinetako erosoak
- Ura
- Hamaiketakoa
- Mugi txartela edo autobuserako dirua (soilik ondoko herri batera joaten bagara)

Abenduaren 26an **eguraldi txarra eginez gero**, mendi irteera bertan behera geldituko da (aurretiaz korreoz abisatuko dizuegu hala baldin bada); eta egunean bertan, arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara bitartean, film emanaldia izango dugu Zabel Kultur Etxean.

Moztu ondorengo baimen-orriaren zatia, eta **entregatu beteta** presentzialki edo online:

- Gaztelekuan bertan, abenduaren 16tik 18ra bitartean (biak barne)
- Email bidez (orrialdeari argazkia aterata), abenduaren 19tik 21era (biak barne):  
lapatxokogaztelekua@gmail.com

---

Nik, ..... -k, NAN ..... zenbakidunak, nire erantzukizunpena adierazten dut, nire seme/alaba den ..... -k parte har dezan Lapatxoko Gaztelekuak 2022-2023 ikasturtean antolatu duen mendi irteeran, abenduaren 26an eskainiko dena. Horretarako, zehatz-mehatz irakurri dut erakundeak berak emandako informazioa, eta parte-hartzeko baldintzak onartzen ditut.

Gaztearen edo gurasoaren kontakturako emaila:

Gurasoaren telefono zenbakia:

Gurasoaren sinadura: